



## HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

**Espedientea:** DNCG\_LEY\_3655/19\_55

**Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Lege-aurreproiektuaren** berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan urriaren 19an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez. GOGORA-Memoria Historiko, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen erakundeko Kudeaketa organoak bidali eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

### a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena otsailaren 13koa da eta, urriaren 16koa zerbitzu juridikoaren txostena. Bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede horrekin araututakoa.



Bestalde, hasieratik zintzilikatu ziren Lege-proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko testuak; beraz, horrela eginda, bete egin zen abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu horren arabera, alde zureko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia xedapen hori betetzera dator; hain zuzen ere, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen.

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira.

Baina Zerbitzu Juridikoaren txostenaren ondoren, testu proposamen berri bat egin zen, eta horretan berriz somatu dezakegu ez zela arauak eskatzen duena jarraitu, gaztelaniazko zatia abenduaren 20an zintzilikatu baitzen; eta euskarazkoa, ordea, abenduaren 23an.

Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

#### b) Euskararen erabilera normalizazioaren gaineko eragina.

10/82 Legeak, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak bere zioen azalpenean zera dio:

*“Euskara gure Erkidegoaren nortasunaren ezaugarri nabarmenena eta objektiboena dela ezagutzen dugu eta, euskara jakinez eta erabiliz, gizakiak erkidegoan bete-betean txertatzeko tresna dela”.*

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Lege-aurreproiektuak bere 3 artikuluan bere j) azpiatalean onartzen ditu lege honen hartzaile moduan

*“j) Diktadura frankistan euskara erabiltzeko debekua zela-eta hizkuntza hori erabiltzeagatik jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsonen.”*

Hau horrela, proposatzen dugu artikulu horretan jasotzen diren “euskararen erabiltzaile izateagatik jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsonen” gehitzea euskararen sustapena, dibulgazioa eta irakaskuntza ekintzak aurrera eraman zituzten pertsonak. Testua horrela geratuko zen:

*“j) Diktadura frankistan euskara erabiltzeko debekua zela-eta hizkuntza hori erabiltzeagatik, sustatzeagatik, dibulgatzeagatik eta irakasteagatik jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsonen”.*

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria